

FRANCISCA DE ACULODI

Sariaren VII Edizioa

Genero ikuspegia UPV/EHUko Gradu amaierako lanetan barne hartzearen FRANCISCA DE ACULODI Sariaren VII. Edizioaren —2019/2020 ikasturtea— Ingeniaritza eta Arkitektura jakintza adarraren epaimahaia bildu da, eta deialdi honetan honako Gradu hauetako aurkezturiko 2 lanak aztertu ondoren, epaimahaiak saria honako lan honi ematea erabaki du:

Euskaraz:

**ESPAINIAKO ERRESUMAKO ETA POLONIAKO POBREZIA
ENERGETIKOAREN ANALISIA**

Gaztelaniaz edo ingelesez:

SYSTEMS TO DECREASE GENDER BIAS IN CLASSIFIERS

Deialdiaren 3. puntua betetzeko

“Epaimahaiak 2021eko otsailaren 15a baino lehen argitaratuko du deialdiaren emaitza <https://www.ehu.es/eu/web/berdintasuna-direccionparaligualdad/-/francisca-de-aculodi-vii-edizioa> orrian, honako hauen berri emanez: irabazlearen izena, tutorearen izena eta Saila, zein Gradu eta ikastegikoa den, eta saritutako lanaren edo lanen laburpena”.

Euskaraz eginiko lanaren Irabazlea:

Mikel Sarasola Artolazaga

Energia Berriztagarrien Ingeniaritzako gradua (Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola)

Tutoreak: Oihana Aristondo Echeberria eta Eneritz Onandia Gerrikabeitia

ESPAINIAKO ERRESUMAKO ETA POLONIAKO POBREZIA ENERGETIKOAREN ANALISIA

LABURPENA:

Jarraian aurkeztuko den lan hau, lan analitiko batda. Analisi hau, pobrezia energetikoaren analisi bat da hain zuzen ere eta herrialde aurreratuetan dagoen pobrezia energetikoa neurtzea du helburu. Hau egin ahal izateko, Europako bi herrialde aztertuko dira bakoitza bere aldetik zein bata besterekin alderatuz, Espainiako Erresuma eta Polonia. Bi herrialde hauek hartzearen arrazoi nagusiak hiru dira: biak Europan kokatuak daude, biztanle eta tamaina antzekoak dauzkate eta bukatzeko egoera klimatiko oso ezberdinak dauzkaten herrialdeak dira. Bi kasu hauen azterketaren bitartez hipotesi nagusi bat datuen bidez egiaztatzea da helburua: herrialde garatu eta teknologikoetan oraindik ere pobrezia energetikoa arazo erreal bat da. Hipotesi nagusi honetaz gain, beste bi ere egiaztatzea izango da helburua: pobrezia energetikoa ez da arazo isolatu bat eta pobrezia energetikoak emakumeengan du eragin handiena.

Hiru hipotesi hauek egiaztatzeko hainbat datu eta neurketa egingo dira, etxebizitza pobreen identifikaziotik hasi eta honek sexu bakoitzean duen intzidentziarekin bukatuz. Modu honetan, datu eta emaitza zehatzen bidez Espainiako zein Poloniako egoerak aztertu eta konparatu ahalko dira. Hala ere, kalkulu eta datuen analisiarekin hasi aurretik beharrezkoa da deskribapen teoriko bat egitea, bai pobrezia energetikoak munduan duen eragin ezberdina azaltzeko eta baita neurketak egiteko erabilitako metodoa azaltzeko ere. Lehenengoa oso garrantzitsua da gainera bada ere azaltzea, kontuan izan behar baita, hipotesi nagusia herrialde aurreratuetan pobrezia energetikoa egon badagoela frogatzea bada ere, arazo hau askoz ere handiagoa dela herrialde azpigaratuetan.

Lan analitiko bat izanda beraz, datuen analisi eta azterketa bat egingo da hauen bitartez aipatutako hipotesiak egiaztatzeko helburuarekin. Honenbestez, ez da arazo hauek konpontzeko proposamen zehatzik egingo, helburua arazoa detektatu eta ezaugarritzea izango baita.

Euskaraz eginiko lanaren irabazlea:

Oier Irazabal Urrutia

Ingeniaritza Informatikako gradua (Informatika Fakultatea)

Tutoreak: Olatz Arbelaitz

SYSTEMS TO DECREASE GENDER BIAS IN CLASSIFIERS

LABURPENA:

It is said that with great power comes great responsibility. Nowadays, we rely on machine learning systems that are capable of understanding text at a human-like level. Yet, relations like "man is to computer scientist what woman is to homemaker" are present in these systems.

The importance of the topic and the effect it has in the society has made it become an important research topic during the last years giving rise to different solutions. In this work, we describe some state-of-the-art techniques that reduce gender bias in machine learning algorithms as well as assess their results employing fairness evaluation metrics.